



Egilea / El autor

Dolores Redondo Meira (Donostia, 1969) Zintrueni-gon bizi da. Zuzenbide- eta Sukaldaritza-ikasketak egin zituen, eta kontaera laburren eta haurrentzako ipuinen bidez hasi zuen bere literatura-ibilbidea. 2013an argitaratu zuen Baztango trilogiaren lehen liburua, *Zaindari ikusezina*, eta ikaragarritzko arrakasta izan zuen gaztelaniaz ez ezik euskaraz ere. Bertan oinarrituta egin zen izen bereko film arrakasta handikoa ere. Trilogiaren hurrengo liburuak dira *Hezurren ondarea* eta *Eskaintza ekaitzari*, Ereinaren argitaratuak guztiak.

2016an, Planeta saria eman zioten *Hori guztia emango dizut* eleberri honengatik.



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Hori guztia emango dizut**

Egilea / Autor: **Dolores Redondo**

Saila / Colección: Cosecha Roja, 20

ISBN / EAN: 978-84-9109-206-3

Salneurria / Precio: 22 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 704

Formatua / Formato: 13,5 x 20,5 cm

Lana / La obra

Ustekabean, heriotza. Familia-sekretu ilunak. Egiaren bila, elezaharretako lur baten bihotz-bihotzean.

Galizian gaude, Ribeira Sacrako agertoki bikainean: Álvaro istripu batean hil da. Haraino joan da gorpua ezagutzera Manuel, haren senarra, eta non konturatzen den bizkorregi itxi dela kasuaren gaineko ikerketa. Álvaroaren familiakoek –Muñiz de Dávilarrek– ez dute ondo hartzen, eta Galiziatik ihes egitea bururatzen zaio Manueli aurreneko gauza; baina bertan geldiaraziko dute Nogueira polizia erretiratu batek inpunitatearen kontra ematen dituen argudioek; Álvaroaren familiaren kontra, beren pribilegioen babespean goxo bizi diren nobleak baitira. Laster sortuko da susmoa, gainera, Álvaroarena ez dela istripu gisa mozorrotu den lehen heriotza. Lucas, Álvaroaren haurtzaroko laguna izandako apaiz bat, Manuelekin eta Nogueirarekin elkartuko da, eta ustez ondo ezagutzen zuten pertsonaren ezkutuko bizimodua berreraikitzen saiatuko dira hirurak.

Itxuraz inolako kideetasunik ez duten hiru gizon hauen arteko adiskidetasun esperogabeak lagunduko dio Manueli nabigatzen bere senarra zenarenganako maitasunaren eta ordura arte erre-alitateari bizkarra emanez bizi izanaren oinazearen artean. Eta halaxe hasten da egiaren bilaketa, sineste irmoetako lurralde batean, usadio sustraituak dituena, logika inoiz erabat nagusitzen ez den toki batean.